

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OLETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### 247/2022 prozedura laburtuan interesa dutenak epatzea

Oletako Administrazio Batzarreko presidentek erabaki du espediente hau bidaltzea Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegira: Itzarri Natura SLk Oletako elizateko Administrazio Batzarraren 2022-05-26ko erabakiaren aurka jarritako errekurtsua arrazoitzen duen espedientea (247/2022 D prozedura laburtua). Aipatutako erabaki horrek ezetsi egin zuen 2022-04-19an aurkeztutako erreklamazioaren presuntziozko ezestea dela-eta 2022-05-13an aurkeztutako errekurtsua.

Hori guztia iragarki honen bidez jakinarazten zaie espedientean interesdun gisa agertzen diren guztiei, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoa betez. Aldi berean, dei egiten zaie, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera 9 eguneko epean, epaitegian ager daitezen, beren interes legitimoen defentsan.

Oleta, 2023ko urtarrilaren 11

*Lehendakaria*  
TZAITEL ALDASORO BENGEOA